

7 ARABA

Zirauntza ibaiaren iturburua



Ingurumen-garrantzia

Iturburu hau Euskal Herriko garrantzitsuenetako bat da eta Aizkorri mendilerroaren Karst mendiguneko ur-emanaren jatorria da. Haren urek Araia eta Agurain hornitzen dituzte, besteak beste. Ibilbidea Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barnetik pasatzen da

eta bertan ugaritasun botanikoa anitza eta aberatsa da: Ametza (*Quercus pyrenaica*), Erkametza (*Quercus faginea*), pagoa (*Fagus sylvatica*) eta aritza (*Quercus robur*). Animalia askoren bizilekua ere bada: basurdea (*Sus scrofa*), erbia (*Lepus europaeus*)

eta basauntza (*Capreolus capreolus*). Batzuk ez dira hain errazak ikusten: lepazuria (*Martes foina*), lepahoria (*Martes martes*), azkonarra (*Meles meles*) eta basakatua (*Felix silvestris*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 4,0 km



Ordu 1 eta 30 min



BTT-z
hurbildu
ubideraino



Udalerria:

Asparrena

Hurbileko herria:

Araia



Ibaia:

Zirauntza



Arrisku faktore bat baino
gehiago dago



803 m



261 m



614 m



264 m



**ZIRAUNTZA
IBAIAREN
ITURBURUA**


Zirauntza ibaiaren iturburua



Non dagoen eta nola heldu

Zirauntza ibaiaren iturburua Arabako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko koadrantean dago, Araia herritik hurbil, Asparrena udalerrian. A-1 autobiatik helduko gara Asparrenako industria-gunera eta bertatik Araia aldera joko dugu A-3020 errepidetik. Hiribarnera helduta, Sagastui kaletik jarraituko dugu eta ibaia ezkerrean ikusirik, Intxusi kaletik helduko gara zubiraino. Hura gurutzatu gabe, eskuineko bidea hartuko dugu San Pedro indarretxeraino eta bertan utziko dugu autoa ibilbideari ekiteko.

San Pedro indarretxetik ibaiaren pare egingo dugu txangoa. Haritzek eta pagoek agintzen duten mendialde honek ekialde-mendebalde norabideko hesi orografiko bat sortu eta iparreko haize hotz eta hezeak geldiarazten ditu. Ibilbidean SL-A14 panelak daude. Indarretxearen inguruko bidea hartuta, iturbururaino helduko gara. Zuhaizti bat zeharkatutakoan, lurreko pistaren ezkerreko adarra hartuko dugu. Berrehun eta berrogeita hamar metro eginik atzean utziko dugu, ezkerretik, Ajuria-Urigoitiako burdinola zaharra. Bidea gero eta bihurtu suagoo eta aldapatsuagoo bihurtuko da. Laster, atsedeen-gune bat aurkituko dugu mahai, aulki eta guzti. Paraje ona da ingurua gozatzeko. Goranzko bihurtu bikoitz batean, ibilbidearen panel bat aurkituko dugu. Ezkerreko bidexka estutik jaitsiko gara ibaiaren ondo-ondotik, iturburuaren azpiko iturbururaino. Eskuineko bidexka hartuz gero, Allondoko zubiraino helduko gara, eta hura zeharkatu gabe, indarretxearen ubidearen aurrez aurre doan bideari jarraiki, iturbururaino helduko gara. Itzulia bide beretik egin daiteke edo ibaia zeharkatu eta ubidearen alboko bidexkari jarraituz. Ajuria-Urigoitiko burdinola zaharreko Urtegi zaharreraino helduko gara luze gabe eta handik errepidean zehar iritsiko gara abiapuntura. Ibilbidea edozein urtarotan egin daiteke baina udaberrian eta udazkenean zoragarriak dira kolore festak.



Deskargatu
ibilbidea:



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Zirauntza ibaiaren iturburua



Zirauntza ibaiaren iturburua

